

usurbil
20160522

 **XXXV.**
SAGARDO
EGUNA '16

gehigarri berezia


sagardo
eguna

Josue
Igeltseritza S.L.

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
Sagardo egunean!

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



ESKAINZA
BEREZIAK!

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

- UDARA BEGIRA PRESTATU
ZURE GORPUTZA
- PEDIKURA/MANIKURA ESMALTE
IRAUNKORRAREKIN



Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

URTEMUGEN EDIZIOA

Urtero berdina diogu; hemen dela usurbildarren jaialdi kuttunena. Eta hogeita hamabosgarren aldiz errepi-katuko dugu gauza bera. 2016an, bizi asko segitzen baitu Usurbilgo sagardoaren festa egun handiak. Iaz, udal eta foru hauteskundeak tarteko aste-betez aurreratu behar izan zen hitzordua, ohiko egunera bueltan datorkigu aurten; maiatzeko azken aurreko igande honetara.

Lehen hitzordua: 10:30ean,

Udarregiren omenezko eskulturaren

Kilometroak urte betean ospatu zen iazko edizioa. Bi urtemuga gurutzatuko dira oraingoan; frontoi ondoan dugun Udarregiren omenezko eskulturak 50 urte bete baititu. Remigio Mendiburuk ondutako artelana inauguratu zela mende erdia bete da eta igandean, oroitzapen ekitaldi berezi batekin gogoratuko da urteurrena 10:30ean, eskultura kokatua dagoen plazatxoan bertan.



Sagardo Egunari ekin baino lehen bi urtemuga ospatuko dira.

Bigarren hitzordua: 11:00etan, NOAUA!ko argazkia

Eta plaza batetik bestera gero, Sagardo Eguneko bigarren urtemuga ospatzera. 20 urte bete baititu NOAUA! Kultur Elkarteak. Bi hamarkada, eus-

kara eta euskal kultura sustatzen. 20 urte, Usurbilgo eta usurbildarren berri ematen. Zuekin guztiokin ospatu nahi dugu urtemuga, oso modu berezian. 1996ko Sagardo Egunean, proiektu hau jaiotzeaz zela, prestaketa lan betean ziren lagunek ateratako NOAUA!kideen argazkia berri nahi dugu, erretraturako duela bi hamarkada hautatu zuten eskenatoki berean; Potxoenea eta Kale Nagusia arteko plazatxoan. Bazkide zein irakurle, zuen zain izango gaituzue.

Hirugarren hitzordua: 11:30ean, Sagardo Egunaren hasiera ekitaldia

Guztion oroimenean geratuko den argazkia atera ondoren, frontoirako bidea hartuko dugu. Sagardo Egunaren antolatzaileei esker, aurten NOAUA!-rena izango da jai egun handiari ekiteko ohorea. Irekiera ekitaldi berezia izango da dudarik gabe. Badugu zer ospatua hortaz. Zuekin guztiokin bizi nahi dugu une berezia.

JAIA, AUZOLANAREN EMAITZA

Hasiera ekitaldiarekin batera leher-tuko da jai giroa. Pilotalekuan bertan, Dema eta Askatasuna plazetan kokatuko diren postuak ireki eta hasiko da joan etorria. Baserriko sagardoa dastatu ahalko dugu. Usurbil, Aginaga eta Zubietako sagardotegietakoak. Baita Gipuzkoako beste zenbait txokotakoa ere.

Usurbildarrak ariko dira, ohi denez,

edari preziatua zerbitzatzen, Askatasuna plazan pintxoak sukaldatu eta banatzen ariko direnekin batera.

Edalontziak, frontoi sarreran salgai

Sagardo botatzaileen esku utzi gero, haiak aseko baitute guztion sagardo egarria. Jabetuko zaretenez, azken urteotan ematen ari da erreleboa botatzaileen artean, Sagardo Eguneko

antolakuntzan bezalaxe. Laguntzak ez du etenik jaialdi honetan.

Aurten animatzen zareten sagardo botatzaileok, badakizue; maiatzaren 22an, goizean goiz hurbildu frontoi ingurura. Postuak jartzen lagundu, eta goizean zehar zerbitzatzen aritu ostean, arratsalde-gau parteko parrandari ekin aurretik, merezitako bazkaria izango dute laguntzaileek.

IV. SAGASTIAK LORETAN

Sagastiak Loretan jardunaldien artean dago Sagardo Eguna. Baina aurretik, eta ondoren, hainbat ekitaldi izango dira sagarraren, sagastiaren eta sagardoaren inguruan.

Maiatzak 19, osteguna

■ 11:00 Euskal Herriko Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpena Potxoenean.

Maiatzak 22, igandea:

35. Sagardo Eguna

Gehigarri honetako 16. orrian duzue txosnagunearen egitaraua, eta 18. orrian Sagardo Eguneko antolatzaileena.

Ekainak 4, larunbata

■ 09:00-13:00 Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko saioa Potxoenean: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak".

Bideratzailea: Aitor Etxeandia.

■ Hurrengo saioak:

Uztailak 9: "Zuhaitzen udako edo begiko txertaketa".

Irailak 10: "Sagarraren heldutasun analisia eta etxean sagardoa egiteko hastapenak".

■ Informazio gehiagorako eta izen emateko: 943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

■ Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

■ Elkarlanean: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.



"Sagarrondotik sagardora" ikastaroak aurrera darrai. Ekainaren 4an Aitor Etxeandia arituko da berriro hizlari lanetan.

SAGARDO EGUNEAN IZANGO DIREN SAGARDOAK

BASERRIETAKO SAGARDOAK:

Agerre Azpi, Aizperro, Anburu, Gorosti, Kupel Txiki, Leitzarran.

SAGARDOTEGIETAKOAK:

Aginaga: Aginaga, Urdaira.

Usurbil: Aialde Berri, Arratzain, Saizar.

Zubieta: Astiazaran.

Aduna: Aburuza.

Aia: Satxota, Izeta.

Astigarraga: Artola, Astarbe, Bereziartua, Lizeaga, Petritegi.

Igeldo: Calonge.

Hernani: Alberro, Otsua-Enea,



Rufino, Iparragirre, Goiko Lastola.

Lasarte: Otegi.

Urnieta: Elutxeta, Oianume.

Zerain: Oiharte.

Terraza zerbitzua!
Ondo pasa Sagardo egunean!



xapeldun
taberna

- pintxoak • razioak
- ogitartekoak
- plater konbinatuak
- eguneko platera

munalurra 2, USURBIL

IRATXO TABERNA




SAGARDO EGUNEAN
MENUA: BASERRIKO DILASKOA + ENTSALADA +
(SAGARDOA EDO KABA) ETA BOKATAK
EGUERDIAN TRIKITIXA ETA ARRATSALDEAN KONZERTUA

JEAN LARUNBAT arratsaldean, DINBI-DANBA taldearen kontzertua

Borda Berri 5, USURBIL



Patriena
Iatetxea

- bazkariak EGUNERO
- afariak, asteazkenetik larunbatera

☎ 943 362725 • ☎ 688 690 361

kale nagusia 14. 20170 USURBIL



Sirriati
Taberna

USURBIL

UDARREGI BERTSOLARIAREN OMENEZ, REMIGIO MENDIBURU ESKULTOREA GOGOAN

Udarregik kantatua da *Gure kolejiyuak, sagardotegiyak*. Profezia gisa ere har daiteke Udarregik aspaldian esandakoa. Pentsa: ia bi mende pasa dira hura abestu zue-netik, eta sagardotegiak jarraitzen du bertsolari zein bertsozale askoren gustuko plaza izaten.

Juan Joxe Alkain Iruretagoiena, 'Udarregi' bertsolaria Aiako Uztaetaburu baserrian jaio zen, 1829an. Gaztea zela, familia Usurbilgo Udarregi baserrira etorri zen. Handik urte batzuetara, berriz, Artikulaaundi baserrira aldatu ziren.

'Udarregi' bertsolaria eta plazagizona oso ezaguna izan zen Beterri guztian. 1895ean hil zen. Ez da bere argazkirik gordetzen.

Bere omenezko eskultura bat dago, ordea, frontoiaren ondoan. Remigio Mendiburu eskultoreak egin, eta duela 50 urte ipinia. Igande hone-tan, biak ekarriko dituzte gogora: bertsolaria eta eskultorea.



Joanito Dorronsororen *Bertsotan* liburuak (Ikastolen Elkarte, 1981) Udarregiren ilustrazio hau dakar. Ez da bere argazkirik ezagutzen.

EKITALDIA ESKULTURAREN ONDOAN EGINGO DA

1966ko maiatzaren 22an inauguratu zen Udarregiren omenezko eskultura. Egutegiaren kapritxoak. 50. urteurrenak Sagardo Eguna-rekin bat egin du. Hori dela eta, Sagardo Eguna hasi baino lehen, ekitaldi bat egingo da Udarregiren

aldeko eskulturaren aurrean. Goizeko 10:30ean hasiko da.

Maiatzak 22 igandea

10:30ean Matistanea etxe parean, Udarregiren omenezko eskulturaren aurrean.



SAGARDO EGUNEKO HASIERA EKITALDIA, NOAUA! KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK

Sagardo Egunaren Lagunak taldekoei esker, bi hamarkada bete dituen NOAUA! K.E.-k izango du, igandeko Sagardo Eguna abiatzeko ohorea.

Bazkideak, oholtza gainean

Zuengatik eta zuentzat izatea nahi dugu. Omenaldi txiki eta xumea, 20 urte bete dituen NOAUA! Kultur Elkarte modu batean edo bestean laguntzen, babesten aritu zaretenoi. Une motza izango da, baina motza bezain berezia izatea nahi dugu, ge-



Idoia Torregarai NOAUA!ko lehendakariak, eta Josu Furundarena zein Maribel Mena bazkideek piztuko dute jai-giroaren metxa.

hienbat bazkideontzat. Zuei gorazarre egiteko ekitaldia izango da.

Eta egitasmo hau aurrera ateratzen lagundu duzuen guztioi eskerrik beroenak eman eta zoriontzeko, bi bazkide igoko dira frontoiko oholtza gainera, kultur elkarte honetako lehendakari Idoia Torregarairekin batera; Josu Furundarena eta Maribel Mena NOAUA! kideak. Biekin hitz egiteko aukera izan dugu. Ondorengo orrietan dituzue elkarriketak. Igandean, goizeko 11:30ean, Sagardo Eguneko irekiera ekitaldian ikusiko dituzue. Gero, festara!

TXIRIBOGA
TABERNA

OGITARTEKOAK · HANBURGESAK · SANDWICH-AK
PLATER KONBINATUAK · RAZIOAK · ENTSALADAK

Ondo pasa
Sagardo egunean!

Tel: 663600020
IRAZU KALEA 6, USURBIL

Ondo pasa
sagardo egunean!

BENTA
TABERNA

Ogitartekoak, hanburgesak eta
plater konbinatuak

Etzera eramateko ere! 943 36 93 05

“PIXKANAKA, GERO ETA GEHIAGO ULERTZEN DUT”

Duela gutxi tramitatu duzu NOAUA!ko bazkietza. Zerk animatu zaitu?

Maribel Mena: Martxoan egin nuen bazkietza. Gustuko ditut kultur ekintzak. Horregatik animatu naiz, herrian zer antolatzen den jakiteko eta parte hartzeko baita.

Astekaritik, zer duzu gogokoen?

Orohar dena gustuko zait. Interesgarria da niretzat. Euskara ikasten ari naiz eta oso ondo datorkit orain. Normalean aldizkari osoa irakurtzen dut.

Ze urratsetan zaude orain?

Ikasturte honetan hasi naiz Etumeta-AEK euskaltegian. Lehenengo perfila atera nahi dut.

Zein da zure helburua?

Perfila atera eta euskaraz hitz egiteko ohitura hartu nahi nuke. Euskara pixkanaka, geroz eta gehiago ulertzen dut. Hitz egin ez hainbeste. Urdu jartzen naiz.

Baduzu euskaltegitik kanpo euskaraz aritzeko aukera?



“Asko ikasten dugu Etumeta-AEK euskaltegian. Giro ona dugu”

Euskara ikasten ari da. NOAUA!ko bazkide egin berri da eta Sagardo Eguneke irekiera ekitaldian hartuko du parte.

Senarrarekin eta umeekin. Umeak ikastolan daude eta etorkizunari begira, etxekolanekin lagundu nahi nieke.

Kalean errazten zaizu euskaraz hitz egitea?

Mintzalagun egitasmoan parte hartzen hasi berri naiz. 3-4 laguneko talde txikia osatu dugu. Lautan bakarrik bildu gara oraindik, baina

esperientzia ona da, soltura hartzen laguntzen dit. Gustura nabil.

Noiz atera nahi zenuke perfila?

Azterketa egin behar dut ekainean, saiatu nahi dut, ia zer moduz ateratzen zaidan. Ateratzen ez badut hurrengo urteko ekainean saiaturiko naiz berriz.

Epe luzerako helburua denez, ikasketan aurrera segitzen motibatzen nau.

“LAGUNEKIN GOIZ PASA EGITEN DUGU SAGARDO EGUNEAN, ETA GERO BAZKARIA IZATEN DUGU”

Nola biziko duzu Sagardo Eguna?

Normalean, lagunekin plana egiten dugu. Goiz pasa egiten dugu Usurbilen, sagardoa dastatzen aritzen gara. Eta gero bazkaria izaten dugu. Aurten ez dakit zer egingo dugun, aurreko urteetan hemen

inguruko sagardotegiren batera joan izan gara bazkaltzera.

Animatu NOAUA!ko irakurleak Sagardo Egunera.

Bai, giro ona izaten da batez ere goizean. Oso giro ona eta polita. Animatu Sagardo Egunera, ia eguraldi ona

egiten duen. Ondo pasako dugu.

Euskalduntzeke dagoenari zer esango zenuke?

Hitz egitea polita dela. Umeekin hitz egiteko lagungarria zait niri. Lehen euskaraz hitz egiten nuen arren, errazagoa zait orain.

IREKIERA ETA GERO, SAGARDOA ZERBITZATZERA

Egun berezia datorkizu?

Josu Furundarena: Urte dezentez oholntza gainera igotzea tokatu izan zait Sagardo Egunez, trikititxa jotzeko. Oraingoan ospakizun hau tokatu zaigu eta gustura.

Trikitilari moduan, oholntzatik nola ikusi izan duzu Sagardo Eguna?

Denak jaietan murgiltzeko zain eta pozik izaten dira. Jaialdi hasieran jo izan dugu trikititxa, irekiera ekitaldia ospatu eta berehala igo izan gara oholntza gainera Zumarteko trikitilari eta panderojoleak, Juan Tapiarekin. Oraindik jendea lasai ibiltzen den garaian.

Iaz estreinakoz sagardoa zerbitzatzen aritu zinen. Zer moduzko esperientzia izan zenuen?

Bukaerarako nekatuta, baina gustura. Beste aldetik ikusten da Sagardo Eguna. Hasieran lasaixeago ibiltzen da jendea, bukaeran gehiagorentzen dira. Egarri gutxiago eta hitz egiteko gogo gehiago izaten da. Sagardoa botatzeko jen-



“Iaz hasi ginen lehen aldiz botatzaile gisa. Aurten ere ibiliko gara”

NOAUA!ko bazkide gisa, irekiera ekitaldian hartuko du parte, goizeko 11:30ak aldera.

de berria sartzen ari da pixkanaka. Aldaketa hori beharrezkoa da segida izateko.

Postura gerturazten direnek, nola epaitzen dute sagardoa?

Gustura baina antzematen zen sagardo batzuk lehenago bukatzen zirela beste batzuk baino. Orokorrean jendea gustura geratu zen. Ia aurten, sagardo gehiago izan da, sagarra

ere ugariagoa izan da, eta ia jendea gustura geratzen den.

Ze plan duzu Sagardo Egunerako?

Goizean goizetik frontoian izango gara prestaketa lanetan; sagardoa hozteko izotza jartzen, mahaiak prestatzen... Goizean zehar sagardoa botatzen ibiliko gara, eguerdian bazkaritara eta bazkaritik aurrera, arratsalde-gau parteko festa. Nekatu arte.

“NOAUA! BEZALAKO EKIMENEK AURRERA ATERATZEKO BABESA BEHAR DUTELA IRAKATSI DIGUTE GURASOEK”

Sagardo Eguna hasi baino lehen, NOAUA! kideen duela 20 urteko argazkia berrituko dugu. Bertan izango zara baita.

Beste urteren batean ere izan gara argazki horretan. NOAUA! zaletua dena ekitaldira gerturatzera animatzen dut. Gazteok

urrun ikusten dugu NOAUA!, baina guk ere parte hartzeko gune bat da. Ia animatzen garen, ia hartzen dugun iniziatiba, aukera bada eta.

Nolatan bideratu zenuen NOAUA!ko bazkidegata?

Gurasoak sorreratik dira NOAUA!

kide, halako ekimenak aurrera ateratzeko babesa behar dutela ikusi baitute, eta hala irakatsi digute. Finantzaketan parte hartzeko bazkide izatea baliagarria eta garrantzitsua da. Horregatik gara arreba eta biok NOAUA!ko bazkide.

ETENIK EZ, TALOGILEEN TALDEAN

laz garai honetan iragarri genizuen. Urte luzez, Sagardo Egun, Artisautza edo San Tomas Azoketan, baita beste hainbat ekimenetan ere, muxtruk talo eder askoak gogotsu prestatzen aritu izan den taldea desegitera zihoala. lazkoa izango zela lanean jardungo zuten azken Sagardo Eguna. Bide batez, taldeari segida emateko prest zeudenei Mikel Laboa plazako karpa azpira gerturatzeko gonbita luzatzen zieten festa egun handian.

Aldaketekin, lehengo kide batzuek segita, bidelagun berriak batuta, taldeari eutsi diote. Igande honetan bueltan dira, Mikel Laboa plazan Ernai Usurbilek antolatutako txosnagunean aurkituko dituzue. 11:00etan irekiko dute karpa. Eguerdi partera arte ariko dira taloak prestatzen.



Mikel Laboa plazan ipiniko duten txosnagunean aurkituko dituzue talogileak lanean.

Eguedira arte lanean

Euren lan jarduna ezagutu eta mimo handiz prestatutako jatekoa dasta-

tzeko aukera bikaina izango dugu sagardo tragoxka eta tragoxka artean, maiatzaren 22an.

PRESOEN SENIDEEI LAGUNTZEN

Elkartasun bilgunea izan da betidanik talogileena. Jasotako dirua, euskal presoen senideei laguntzera bideratu izan dute. lazko Sagardo Egunean, taldea desegitera zihoala iragarri ostean, buru-belarri lanean zirela, ezusteko eta merezitako omenaldia jaso zuten Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearen eta hainbat herritarren partetik.

Modu honetan, urteetan emandako laguntza eskertu nahi izan zioten bolondres taldeari. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko mobilizazioen amaieran izan zen. Aurtengorako euskal preso eta senideen eskubideak errespetatzea exijitzeko kalejira eta txotx berezia iragarri dituzte iganderako 13:00ean, txosnagunetik abiatuta.



Kalejira eta txotx berezia iragarri dituzte iganderako, txosnagunetik abiatuta.

Auto Guria s.l



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Poligonoa USURBIL

Uraitz, s.l.



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

693 05 93 92

Borda Berri 2, 3ºA USURBIL

uraitz@uraitz.com

SAGARDOAREN LURRALDEA, “DENON MARKA”

Sagardoaren kultura sustatzeko ahalegina ez da gaurkoa. Eremu honetako elkarlana hedatzen doa. Sorlekutik, Astigarragatik eskualderako jauzia eman zuen orain urtebete Sagardoaren Lurraldeak. Sagardoaren kultura sustatzeko elkarlanerako lau urterako hitzarmena sinatu zuen aipatu herriko udalak, Hernani eta Usurbilgoak.

Lankidetza itun honen baitan, hiru udalerrak Sagardoaren Lurraldea markapean integratzeaz gain, aurrera begira, Sagardo Bideak sortzeko edota Sagardoetxea Museoan parte hartzeko konpromisoa hartu zuten. Gainera, sagarra eta sagardoan berezituriko Sagardoetxeako Dokumentazio Zentroan jasota geratuko da, Hernani eta Usurbilgo sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko dokumentazioa. Eta dokumentazio hau guztia kontsultatzeko zerbitzua eskainiko da. Dokumentazio hau erabilgarri izango dute hiru udalek. Ekitaldi berriak sortzeko bidea irekitzen du



“Bezeroek zerbait gehiago nahi dute eta zerbait gehiago eskaini behar zaie”

Elkarlanean aritzeko lau urteko hitzarmena dute Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalek sinatua.

hitzarmenak. Hortik dator egunotan,

Sutegin bisita dezakezuen “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa. Edota azken bi urteotan ospatu den “Sagardoaren Lurraldea ezagutzuz” ibilaldia. Ekimen hau urtero egiteko asmoa dago, txotx boladaren amaieran, apirilko azken igandean.

Sagardoaren Lurraldean integratu, sustatu eta komertzializatuko da aurrerantzean bestalde, Astigarragarekin batera, Hernani eta Usurbilgo sagardoaren kulturako eskaintza turistikoa. Udal bakoitzak Sagardoaren Lurraldetik kudeaturiko erreserben zentrala izango du, bere esperientzia eta sagardotegietarako erreserbak online sustatzeko.

NORTASUN ETA KULTUR MARKA

Bezeroek “zerbait gehiago nahi zuten eta zerbait gehiago eskaini behar zitzaizkien”, aipatu digute Sagardoaren Lurraldetik. Eta hor planteatzen dute, egun indarrean duten marka sortzea; “Sagardoaren Lurraldea”. “Denontzat identifikatzeko erraza izatea nahi genuen. Irekia. Eremu bat, lurralde bat, kultura bat, identitate bat da Sagardoaren Lurraldea”, diote. Marka horrekin hasi ziren lanean Astigarragan. Sa-

gardoaren kultura sustatzeko nahia ordea ez zen udalerririk horretakoa soilik. Inguruko beste udalerriena baita. Saiakerak ere egin zituzten beren kontutik. Azkenean, dauden baliabideak aprobetxatuz, elkarlanerako jauzia eman dute. Sagardoaren Lurraldea iaz handitu zen, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalek sinatu zuten lankidetza hitzarmenari esker. Baina lurraldeak hazten segi nahi du. “Beste herri batzuekin harremanetan bagaude. Ia

sartzen diren eta zabaltzen joaten den pixkanaka”, Sagardoaren Lurraldetik aditzera eman dutenez. Azkenean Sagardoaren Lurraldea, “denon marka da. Denona izatea nahi da, edonork erabili dezakeen marka bat izatea”.

Informazio gehiagorako:

sagardoarenlurraldea.com
twitter.com/sagarlur
facebook.com/Sagardoarenlurraldea

Ondo pasa
Sagardo egunean!



AITZAGA

· Ogitartekoak · pintxoak

IRAZU KALEA 12, USURBIL

ZENDOIA
taberna

Ondo pasa
sagardo egunean!!

kale nagusia 35

edarteregia
BORDATXO

Pintxo bereziak

Bokatak

Plater konbinatuak

ondo pasa
Sagardo Egunean !!

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Ondo pasa Sagardo egunean!

'SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI' ERAKUSKETA

Oria, besteak beste, bi jarduerako ekonomiko garrantzitsuren lotunea zela jabetuko zarete; sagardogintza eta ontzigintza sektoreena.

■ Asteazkenetik ostiralera, 18:00-20:00.

■ Larunbatean 12:00-13:30 / 18:00-20:00.

■ Igandean 12:00-13:30.

■ Antolatzaileak: Usurbil, Hernani eta Astigarragako udalak, Sagardoaren Lurraldea, Donostiako Aquariuma.



Erakusketa ibiltaria Usurbilen da egunotan, Sutegin. Sagardo Egunean zabalik topatuko duzue.

*Ondo pasa
Sagardo Egunean*

JUANTXO

BURDINDEGIA



Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008



ITZIRA
BARRIKUNTZAK

943 530 337
607 119 313



Ondo pasa Sagardo egunean!

- gremioen koordinaketa ·berritze lanak
- sukaldeak ·komunak · mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es



EROSKI
city



*Ondo pasa
Sagardo egunean!*

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



b
Behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888



ARRANDEGIA
PELLO



*ONDO PASA
SAGARDO EGUNEAN*

943 36 21 64 PUNTAPAX 7, USURBIL

TXOSNAGUNEA, MIKEL LABOA PLAZAN

Maiatzak 22, igandea

- 11:00 Txosnagunearen irekiera.
- 13:00 Presoen aldeko kalejira eta txotxa.
- Eguerdira arte, talogileak.
- 15:30 Trikitilariak.
- 18:00 Dj Bull.
- 23:00 Zaparra herriko taldearen kontzertua.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.



Antolatzailea: Ernai Usurbil.

Dj Bull arituko da arratsaldeko 18:00etatik aurrera Txosnagunean.

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

*Ondo pasa
Sagarde egunean!*

Aguirrezabal Estankoa

*Ondo pasa
sagardo egunean*

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

Rafa

iturgingdegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfindatzazko gremioak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

GOLDWELL
ELUMEN

*ile
p
a
i
n
d
e
g
i*



mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

mur

errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

EKITALDIZ JOSIA DATOR SAGARDO EGUNA

Maiatzak 22, igandea

■ 10:30 “Sagardotegia, gure kolejiyua” kantatu zuen Uda-
rregi bertsolariaren oroime-
nez Remigio Mendibururen
eskultura jarri zela 50 urte
gogoratzeko ekitaldia.

■ 11:00 Potxoenea ata-
rian duela 20 urte egindako
NOAUA!ko bazkideen argaz-
kia berrituko dugu.

■ 11:30 Hasiera ekitaldia
NOAUA!ren eskutik.



■ Goizean zehar, frontoian
herriko baserritarrak eta bes-
te sagardogileak izango dira,
Dema plazan Gipuzkoako
sagardogileen elkarteko

postuak jarriko dira eta As-
katasuna plazan Eusko La-
belean sartuta dauden sa-
gardoak dastatzeko aukera
izango da. Pintxoak dasta-
tzeko aukera ere izango da.

■ 12:00-13:30 “Sagardo
ibaiak, bizitza iturri” erakus-
keta Sutegin.

■ 18:00-21:00 “Elektro Pa-
txaranga” kaleetan zehar.

Antolatzailea: Sagardo Egu-
naren Lagunak.

OLARRONDO JATETXEA

* EGUERDIRO EGUNEKO MENUA 12€
(kafearekin)

* MENU BEREZIA 38€
(BEZ barne)

Urdaiazpiko iberiarra
Bakailu entsalada
Otarraiskak

+ aukeratzeko:
Xapoa plantxan
Arkume errea
Txerrikume errea
Legatza plantxan
Txahal masaila
Bakailao konfitatua piperrekin

+ etxeko postreak aukeran,
edaria (urteko ardo beltza, gomia, zuria,
sagardoa, ura) eta kafea

**Zonalde berria!
giro onean!**



ERRAUSTEGIAREN
AURKAKO MUGIMENDUA

Izena emateko:
www.erraustuez.org

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA



MAIATZAK

29

11:30ean

OSASUNAREN
ALDEKO
GIZA KATEA
ERRAUSTEGIAREN KONTRA

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA

XXXV.
Sagardo
eguna
maiatzak
22

Sagardoaren
txinpartak **on**
egin dagigula
denoi!



Uzerriko Urtza

